



## Gipuzkoako Merkataritza Sarien XXII. edizioa

- *Sarituak merkatariek hautatuko dituzte bozketa bitartez.*
- *Aurtengo 10 bitxietan saritutakoak etxerako ekipamendua eta kulturaren sektorekoak izango dira.*
- *Gipuzkoar Merkataritza Enpresa Sariak azaroaren 28an burutuko dira Gipuzkoako Bazkundero egoitzan eta Kutxabank eta Euskaltelen babesa izango dute.*

**Donostia, 2014ko urriaren 13a.** Sari banaketaren XXII. edizio honetan, iazkoan egin zen bezalaxe, Gipuzkoako Bazkunderak Eusko Jaurlaritzako Merkataritza-Bulego Dinamizatzaileekin egin du lan, sariak Gipuzkoa osora gerturatzeko helburuarekin. Sariak esanguratsuak eta gertugokoak bihurtuz: **Gipuzkoako sariak.**

Helburu hau argi eta garbi islatzen da "**10 bitxiak**" sarian, eskualde bereko merkatariek direlako Gipuzkoako 10 merkataritza enpresa nabarmenenak aukeratzen dituztenak, lurraldeko merkataritza bitxien mapa sortuz.

Aurten, 10 bitxiak saria etxeko ekipamenduan eta kulturaren oinarrituta egongo da. Kategoria osatzeko, gipuzkoako merkataritzako aktibitate guztiak hiru talde nagusitan banatu dira: elikadura, etxerako ekipamendua eta kultura, eta pertsonal eta osasun ekipamendua. Hiru talde hauek urtez urte txandakatzen joango dira, horrela 10 bitxiak kategoria osatuz. Iazko edizioan saritutakoak elikagaien sektorekoak ziren: **Arrasateko Landaluze** harategia, **Zumarragako Rueda** frutadenda, **Eibargo Oberena** harategia, **Irungo Solbes Gourmet**, **Donostiako BretxaOliva**, **Astigarragako Mamen** janaridenda, **Segurako Ondarre** harategia, **Pasai Antxoko June Etxea**, **Tolosako Super Eko**, **Zarautzko Lukas Delicatessen**. Datorren urtean, berriz, pertsonal eta osasun ekipamendukoak izango dira eta aurten etxerako ekipamendua, kultura, informatika eta komunikazio tresnetako merkataritza txikizkariak sarituko dira, hau da, **etxerako ekipamendua eta kultura.**

Gipuzkoako merkatariek gaur bertan hasi daitezke bozkatzeko, irudia, ospea eta eskualdeko merkataritzaren ezaugarriak gorai patzen dituzten dendengatik, bozketa azaroaren 2 arte luzatuko da. Hautagaien bilketa, berriz, irailaren 29a eta urriaren 12a bitartean egin da eta oraingo honetan ere merkatariek aukeratu dituzte hautagaiak.



Sarituen izenak Gipuzkoar Merkataritza Enpresa sarien ekitaldian ezagutuko dira. Ekitaldiak Kutxabank eta Euskaltelen babesia izango du eta azaroaren 28an burutuko da Gipuzkoako Bazkundeko egoitzan.

### **Gipuzkoako Merkataritza Enpresa**

10 bitxiak sariaz gain, gipuzkoar merkataritza enpresa sariak Gipuzkoako Merkataritza Enpresa 2014 sariarekin osatzen dira. Sari hau merkataritza sektorean eragin esanguratsua eta Gipuzkoako gizarteari begira, eredugarria izan diren enpresei zuzenduta dago.

2013ko ekitaldian Tolosako **GKo** enpresa izan zen sari nagusia jaso zuen enpresa. GKo, artearen sormenerako eta produkzioarako enpresa komertziala da, Show Room bat da. Euskal Herrian eta Chilen proiektu ezberdinak garatzen ari den enpresa. GKok 2008an hasi zuen bere lana, kezka berdina eta etorkizun profesional berria bat sortzeko nahia zuten sortzaile ezberdinen arteko topaketa batetatik. Proiektua Arte Urbanoko galeria baten irekierarekin gauzatu zen, Euskal Herriko lehenengotakoa eta Tolosako lehenengoa.

***Informazio gehiago nahi izanez gero:***

Irune Bengoetxea

**[ibengoetxea@camaragipuzkoa.com](mailto:ibengoetxea@camaragipuzkoa.com)**

943 000 310 / 688884347